

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJEN FEDERAZIOAK 2017ko ABENDUAREN 15ean EGINDAKO BATZAR NAGUSI ARRUNTAREN AKTA

BERTARATUAK:

Abaigarko Udala
Oibarko Udala
Antzingo Udala
Andosillako Udala
Antsoaingo Udala
Agoizko Udala
Araizko Udala
Arangurengo Udala
Arbizuko Udala
Arguedasko Udala
Artazuko Udala
Atezko Udala
Aurizko Udala
Azagrako Udala
Azueloko Udala
Barañaingo Udala
Barbaringo Udala
Bargotako Udala
Beraskoaingo Udala
Berbintzanako Udala
Beriaingo Udala
Bidaurrenako Udala
Buñuelgo Udala
Burlatako Udala
Cabanillasko Udala
Cadreitako Udala
Caparrosoko Udala
Kasedako Udala
Gazteluberriko Udala
Oltza Zendeako Udala
Cintruenigoko Udala
Zizurko Udala
Cortesko Udala
Deikazteluko Udala
Doneztebeko Udala
Esprontzedako Udala
Lizarrako Udala
Ezporogiko Udala
Fiteroko Udala
Funesko Udala
Fustiñanako Udala
Garinoaingo Udala
Girgillaoko Udala
Ibargoitiko Udala
Iguzkitzako Udala
Imozko Udala
Iruizungo Udala

Iruña Park hotelean (Arcadio María Larraona, 1, Iruña), bi mila eta hamazazpiko abenduaren 15ean, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, NUKFren Batzar Nagusi Arrunta hasi da, aldameneko toki entitateen ordezkariak bilduta. Batzarraren buru den mahaia honako hauek osatu dute: Pablo Azcona Molinet jn., Raquel Garbayo Berdonces and., Jesús María Rodríguez Gómez jn. eta Berta Enrique Cornago and., presidentea, lehen presidenteordea, bigarren presidenteordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren. Hona hemen

GAI-ZERREDA

- 1.- 2016/12/16ko eta 2017/6/30eko batzarretako aktak onestea.
- 2.- NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 3.- NUKFren 2018ko Jarduketan Programa onestea.
- 4.- NUKFren 2018ko Aurrekontua onestea.
- 5.- Galde-eskeak

Presidenteak ongietorria eman die joandakoei, eta mahaiko kideak aurkeztu ditu.

1. gaia.- 2016/12/16ko Batzar Arrunteko eta 2017/06/30eko Batzar Bereziko aktak onestea.

Deialdiarekin batera igorrita 2016ko abenduaren 16ko Batzar Nagusi Arrunteko aktaren kopia eta 2017ko ekainaren 30eko Batzar Nagusi Bereziko aktarena, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, presidente jaunak galdetu du inork oharrik egin nahi dien aktei.

Batzarraren onespenera jarri da 2016ko abenduaren 16ko Batzar Nagusi Arrunteko akta.

Aho batez,

ERABAKI DA 2016ko abenduaren 16ko Batzar Nagusiko akta onestea.

*Itzako Udala
Lakuntzako Udala
Elizagorriko Udala
Ledeako Udala
Lizoain-Arriasgoitiko Udala
Lodosako Udala
Los Arcosko Udala
Irunberriko Udala
Martzellako Udala
Melidako Udala
Mendazako Udala
Mendigorriko Udala
Milagroko Udala
Eloko Udala
Muesko Udala
Murchanteko Udala
Murillo el Frutoko Udala
Nabaskozeko Udala
Noaingo Udala
Odieta Udala
Erriberriko Udala
Olorizko Udala
Orkoiengo Udala
Oroz Beteluko Udala
Azkoiengo Udala
Garesko Udala
Ribaforadako Udala
Zareko Udala
San Adriango Udala
Zangozako Udala
Santakarako Udala
Tebas-Muru Artederretako Udala
Torres del Rioko Udala
Ultzamako Udala
Untzueko Udala
Urraulgoitiko Udala
Urraulbeitiko Udala
Eguesibarko Udala
Ollarango Udala
Vianako Udala
Villatuertako Udala
Esako Udala
Zizur Nagusiko Udala
Antzingo Kontzejua
Artikako Kontzejua
Agezako Kontzejua
Azparrengo Kontzejua
Berriogoitiko Kontzejua
Etxagueko Kontzejua
Gazolazko Kontzejua
Idozingo Kontzejua
Iguzkitzako Kontzejua
Mendilibarriko Kontzejua
Muru Artederretako Kontzejua
Muskizko Kontzejua
Rocaforteko Kontzejua
Undioko Kontzejua
Ustaizeko Kontzejua*

Segituan, Batzarraren onespenera jarri da 2017ko ekainaren 30eko Batzar Nagusi Bereziko akta.

Aho batez,

ERABAKI DA 2017ko ekainaren 30eko Batzar Nagusi Bereziko akta onestea.

2. gaia- NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena onestea.

Presidente jaunak NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena aurkeztu du, deialdiarekin batera igorri dena, eta laburki azaldu ditu NUKFk 2017an egindako jarduketak.

Zehaztu du zer jarduketa egin diren urtean zehar toki administrazioaren mapa berrantolatzerara begira; horien artean, prozesuari buru emateko, Nafarroako Gobernuari beste agiri bat eman zitzaion. Adierazi du harrezkerotik Gobernuak proposamen bat noiz egingo zain gaudela; proposamena jasandakoan, NUKF berriz hasiko da jarduketak egiten.

Toki Inbertsioen Plana martxan jarri izana ere nabarmendu du, baita 2018-2019ko Transferentzia Arrunten Funtsari buruzko Legearekin eginiko jarduketak ere (zuzkidura %6 handitzea ekarri du eta 5,8 milioiko zuzkidura dauka montepioentzat).

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei:

Garbayo andreak hartu du hitza, zeina Cintruénigoko alkatea eta NUKFko lehen presidenteordea baita, eta zenbait arrazoiengatik kontra bozkatuko duela iragarri du. Transferentzia Arrunten Funtsaz, adierazi du Batzorde Betearazleko kideei bizkarra emanda lan egin dela. Toki Inbertsioen Planaren kudeaketaz, azaldu du obra batzuen behin betiko zerrenda oraindik argitaratu gabe dagoela, eta, toki administrazioaren berrantolaketaz, adierazi du uste zuela aurreproiektuaren zirriborro bat bazegoela.

Bestalde, onetsi diren zenbait testu arau-maileren kontra agertu da (Poliziei buruzko Foru Legea, Euskararen erabilerari buruzko foru dekretua, Hondakinei buruzko Foru Legea).

Presidente jaunak, hitza hartuta, adierazi du ahalik eta hobekien jokatu dela. Zehaztu du Toki Inbertsioen Planaren kudeaketa ez dagokiola NUKFri, eta Funtsaren legeaz, gogora ekarri du iaz konpromiso bat hartu zela banaketa proposamen bat egiteko. Toki Administrazioaren maparen berrantolaketaz, berretsi du lana egina dagoela eta zain gaudela prozesuari berriz noiz ekiteko.

*Nafarroako Errege Bardeako
Batzordealruñerriko
Mankomunitatea
Erriberako Mankomunitatea
Jurramenduko Mankomunitatea
Itzagako Administrazio Zerbitzuen
Mankomunitatea
Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen
Mankomunitatea
Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte
Zerbitzuen eta Kirolaren
Mankomunitatea
Buñuel aldeko Oinarrizko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitatea
Los Arcos aldeko Oinarrizko
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea
Izarbeibarko Mankomunitatea*

Batzar Nagusiaren onespenera jarrita,

Kontrako hogeita bost botorekin eta bi abstentziorekin,

Gehiengoz,

ERABAKI DA: NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena onestea, aktari atxiki zaiona eranskin gisa.

3. gaia - NUKFren 2018ko Jarduketaren Programa onestea.

Presidente jaunak NUKFren 2018ko Jarduketaren Programa azaldu du.

Lau jarduketa ildo nabarmendu ditu, besteak beste, prozesu parte-hartzaileari segida ematea Gobernuak aurreproiektua aurkezten duenean.

Halaber, NUKFren ildo estrategikoak edo plan estrategikoa onestea da beste bat. Horretarako, metodologia bat ezarriko da, Batzorde Betearazleak onetsiko duena. Toki administrazioa berrantolatzeke prozesua bukatu ondoren helduko zaio gai horri. Orobat, administrazio elektronikoaren ezarpenari eta Gardentasunari buruzko Foru Legeari emanen zaie lehentasuna.

Azkenik, adierazi du lan egin dela berdintasunaren aldeko entitateen udal sare bat martxan jartzeko.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Burlatako Udaleko alkate den Noval jaunak proposatu du interesgarria litzatekeela entitate instrumentalak izatea. Horretarako, aukera bat izan liteke egungo sozietate publikoak erabiltzea edo halako bideak sustatzea. Erosketen zentral bat sortzeko aukera ere aipatu du.

Presidenteak adierazi du gai horiek denak NUKFren ildo estrategikoen barnean sartzen direla, batez ere erosketen zentral bat sortzeko aukera.

Rodríguez jaunak, zeina Ribaforadako alkatea eta NUKFko bigarren presidenteordea baita, gogora ekarri du Gardentasunari buruzko Foru Legeak bi urteko epean hartuko duela indarra, baina orain hasi behar dela lanean Orobat, gainbalioaren gaineko udal zergaren aldaketak baliabide ekonomikoa galtzea ekar diezaikeela udalei; horregatik, proposatu du zaintza egitea jarduketaren programaren barnean.

Presidente jaunak adierazi du ados dagoela bi gaiekin. Gardentasunaz, adierazi du berak ere uste duela protagonismo handiagoa eman behar zaiola, eta, gainbalioei dagokienez, Gobernuan lanean ari direla zergaren idazketa berrian, eta, lanean jarraituko dutela.

Oltza Zendeako Udaleko alkatea den Garjón jaunak adierazi du lan talde bat sor daitekeela klima aldaketaren eragina apaltzeko.

Presidenteak adierazi du kontuan har daitekeela, baina gogora ekarri du NELS sarearen barnean lan egiten dela horretaz.

Mendo jaunak, zeina Garesko Udalaren eta Izarbeibarko Mankomunitatearen ordezkaria baita, azaldu du datuak babesteko araudi berriarekin betebeharrak eta figura berriak sortzen direla udaletan, hala nola datuak babesteko delegatua. Galdetu du ea NUKFk zerbitzu hori eman dezakeen.

Presidenteak adierazi du gogoan hartuko duela.

Idazkari nagusiak adierazi du ekintza batzuk egin direla datuen babesaren inguruan eta, handik gutxira, beste bat eginen dela Datuak Babesteko Europako Erregelamendu berriaren ondoriozko aldaketak eta betebeharrak jakinarazteko.

Barañaingo Udaleko alkatea den Indakoetxea andreak adierazi du NUKFren lana zoriondu beharra dagoela, oso ongi egokitzen baita toki entitateen beharretara. 2018ko ekitaldira begira, iduri du lan handia egin beharko dela. Ildo nagusien ideia ona da. Eskatu du aipatutako beharrak jaso behar direla eta animatu du ildo horretatik jarraitzera.

Beriaingo ordezkaria den Sanz jaunak adierazi du ondarearen defentsarako batzordearen bilkura batean proposatu zela Federazioari eskatzea lan talde bat sor dadin gai hori landu eta aztertzeko; espero du eragozpenik ez jartzea gai horri heltzeko.

Batzar Nagusiaren onespenera jarrita,

Aho batez,

ERABAKI DA: NUKFren 2018ko Jarduketaren Programa onestea.

4. gaia.- NUKFren 2018ko Aurrekontua onestea.

Presidentek aurrekontua laburbildu du eta idazkari nagusiari eman dio hitza. Horrek partidarik nabarmenenak azaldu ditu, 2017ko aurrekontuarekin eta likidazioarekin alderik handiena dutenak, alegia.

Honako hauek aipatu dira: langileriaren partidaren igoera, prozesu parte-hartzaileena eta programa informatikoak ezartzeko partida.

Kuotei dagokienez, azaldu du aurreko urteetakoei eusten zaiela; orobat, prestakuntzari dagokion partidaren igoera ere nabarmendu da.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei:

Fabo jaunak, Martzillako Udaleko alkateak, adierazi du ez duela ulertzen nola handitu den 30.000 euro langileriaren partida. Azaldu zaio NUKFren plantilla osatu dela, zenbait langile gehitu baitira.

Arangurengo Udaleko alkatea den Romero jaunak galdetu du zer egingen den gerakinarekin; adierazi du toki entitateekin erabili behar direla zalantzarik gabe.

Presidente jaunak erantzun du Plan Estrategikoan erabakiko dela NUKFren baliabideekin zer egin, hausnarketa egin beharko baita entitate horrek eman behar dituen zerbitzuen inguruan.

Toral andreak, Zizurko Udaleko ordezkariak, eskatu du aurrekontu parte-hartzaileen gaia sartzeko.

Erantzun zaio talde bat lanean ari dela, Gobernuarekin batera, parte-hartzearen inguruan, aurrekontuak barne, baina gogoan hartuko dela.

Zizur Zendeako alkatea den Barricarte jaunak adierazi du ez dela proportzionala langileriaren gastua eta Gizarte Segurantzarena; erantzun zaio orain arte indarra zuten hobariak desagertzeagatik gertatu dela hori.

NUKFren onspenera jarrita.

ERABAKI DA: NUKFren 2018ko aurrekontua onestea, hogeita bederatzi abstentziorekin.

6. gaia. Galde-eskeak.

Etxeberria jaunak, Eguesibarko Udaleko alkateak, hitza hartuta, Batzorde Betearazlearen azaroaren 28ko bilkura berezia izan du hizpide, zeinetan transferentzia arrunten funtsa banatzeko proposamen bat onetsi baitzen. Azaldu du bilkura hartan ezin izan zela beste proposamen bat bozkatu, eta horrek agerian uzten duela Batzorde Betearazleko gainerako kideen erabakimen eskasa. Iruditzen zaio presidentea ez zela neutraltasunez aritu gai horretan.

Batzorde hartan gertatutakoa alde batera utzita, bi eskaera formal egin ditu:

- 1.- Erabaki dadila Batzorde Betearazlearen bilkuretan zuzenketak egiten ahal izatea presidentearen proposamenei, eta, hala ez bada, Estatutuak alda daitezela.
- 2.- Hartutako erabakiak alda daitezela.

Idazkari nagusiak azaldu du ezen, berariazko erregulaziorik jasota ez badago ere Estatutuetan, ulertzen duenez, posible dela zuzenketak egitea Batzorde Betearazlearen onespenera jartzen diren proposamenei. Horretarako, hala ere, bozketa-proposamen zehatza egin behar da.

Azaldu duenez, aipatutako bilkuran ez zen proposamenik egin; aitzitik, Toki Administrazioaren Departamentuak eskatu ondoan NUKFk igor zezala banaketa proposamen bat, batzorde betearazle berezi bat egin zen bat hitzartu ahal izateko. Azaldu du bozketara jarritako proposamena aurreko eztabaidan eratu zela, babesik handiena lortu zuena izan baitzen. Gehiengoz onetsi izan ez balitz, beste proposamen bat jarriko zen onespenera.

Hortaz, ez da beharrezkoa estatutuak aldatzea, ezta posible ere, bertan jasota baitago ezen, gai bat gai-zerrendan sartzeko, gutxienez Federazioari atxikita dauden entitateen %5ek eskatu behar dutela idatziz.

Edonola ere, azaldu du orain ezin dela aldatu batzorde hartan hartutako erabakia.

Etxeberria jaunak, hitza berriz hartuta, azaldu du bere iritziz izugarrikoa dela udal batzuentzako kaltea, eta, horregatik, txosten bat eskatuko diola Kontuen Ganberari Funtsaren banaketa dela eta.

Presidenteak adierazi du ustekabeen harrapatu dutela hitz horiek. Haren iritziz, zuzena izan zen hartutako prozedura eta, Batzorde Betearazlearen gehienek babesa jaso izan ez balu onespenera jarritako proposamenak, beste proposamen batzuk bozkatuko ziren.

Bestalde, Esparza jaunak, Kasedako alkateak, galdetu du ea badakigun nola geldituko diren eraturik eskualdeak toki administrazioa berrantolatzeke aurreproiektuan eta ea Batzarrera ekarriko dugun Parlamentura igorri baino lehen.

Funtsaren ordainketa sistema berria ere aipatu du, eta zergatik den horrelakoa galdetu du.

Presidenteak berriz azaldu du nola dagoen toki administrazioa berrantolatzeke prozesua, eta berretsi lehenengo batzarrera ekarriko dela.

Funtsaren ordainketez, azaldu du bitan egingen dela, diruzaintza arrazoiak direla-eta eginiko eskaerengatik. Horregatik, otsaileko eta abuztuko lehenengo astera aurreratuko da.

Romero jaunak, Arangurengo alkateak, adierazi du harrigarria dela adostasuna lortu ezin

izana funtsa banatzeko proposamenean. Estatutuak aldatzeari dagokienez, adierazi du bertan dauden toki entitateen %5ek eskaera berretsiz gero egin litekeela aldaketa.

Toki administrazioaren berrantolaketaz, adierazi du aurreproiektua ikusgai dagoela departamentuaren web orrian.

Estatutuen aldaketari dagokionez, presidenteak hitza hartu eta adierazi du plan estrategikoaren barnean ekin behar zaiola horri, baina soseguz eta aztertu ondoren zer gairi helduko zaion. Aurreproiektuaz, adierazi du ildo nagusien dokumentua eman dela argitara, ez aurreproiektua.

Idazkari nagusiak azaldu du alde zuzenetik eta idatziz eskatu behar dela gai bat sartzea, horren gainean eztabaidatu ahal izateko.

Esako Udaleko alkatea den Martinez jaunak %1,5eko tasaz galdetu du.

Zizur Zendeako alkatea den Barricarte jaunak adierazi du harrigarria dela estatutuak gisa horretan aldatu nahi izatea, tankera horretako gauza bat xehetasun handiz aztertu behar baita.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du errespetu falta iruditzen zaiola aldaketa proposamena egin duena ez egotea gaiak sortu duen eztabaidan.

Cortesko Udaleko alkatea den Ausejo andreak adierazi du garrantzitsua iruditzen zaiola dokumentazioa gaztelania hutsez jaso ahal izatea, ekonomiagatik eta ekologiagatik. Adierazi du posta elektronikoz bidez bidalita, artxibo desberdinetan igor daitekeela.

Presidenteak adierazi du joera dela dokumentazio guztia posta elektronikoz igortzea. Gainera, adierazi du erabaki estrategikoa dela ikusgaitasuna ematea Nafarroako bi hizkuntzei.

Miranda jaunak, Undioko Kontzejuko ordezkariak, esan du bere ustez nahasgarria dela dokumentazioa modu batean edo bestean igorri behar izatea, udalean nor dagoen. Funtsari buruz, adierazi du arazoak dakarziela kontzejuei eta ona litzatekeela udalerrri konposatuek hitz egitea kasuan kasuko kontzejuekin.

Presidenteak, batzarrari amaiera eman baino lehen, 2018ko erronkak eta helburuak errepasatu ditu.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko 19:00etan direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.